

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Araiako Aratz izeneko VI-10.100 ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendu kontratua lizitatzea

Asparreneko udalbatzak, 2020ko abuztuaren 6ko ohiko osoko bilkuran, Araiako Aratz izeneko ehiza esparruko (VI-10100) ehiza aprobetxamendua esleitzeko kontratazio espedientea onetsi zuen.

Erakunde esleitzaila: Asparreneko Udala.

Kontratuaren xedea: VI-10.100 ehiza esparruko ehiza aprobetxamendua.

Izapidetzea: premiazkoa.

Prozedura eta balorazio irizpideak: irekia, hainbat esleipen irizpiderekin:

– Bertako ehiztarien ordezkari eta parte-hartzea ehiza esparruaren kudeaketan eta gozamenean, gehienez, 5 puntu.

– Erantzukizun zibileko polizaren bermeak: gehienez, 3 puntu.

– Eskaintza ekonomikoa: gehienez, puntu 1.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: 4.200,00 euro urteko gehi BEZa; gehiago eskainita hobetu ahal izango da.

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Behin betiko bermea: esleipenaren azken prezioaren ehuneko 5, BEZa barne.

Agiriak lortzea eta aztertzea: Asparreneko udal idazkaritzan (Herriko enparantza, 1. Araia), 09:00etatik 14:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi egunen barruan. www.asparrena.eus web orrian ere kontsultatu ahal izango da.

Eskaintzak aurkeztea: Asparreneko udaletxean (Herriko enparantza, 1. Araia), 09:00etatik 14:00etara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi egunen barruan.

Aurkeztu beharreko agiriak: baldintzen agirian adierazten direnak.

Errentamendu aldia: hamar urte, ehiza esparrua berritzea onesten duen foru aginduaren egunetik aurrera.

Eskaintzak irekitzea: udaletxeko bilkura aretoan (Herriko enparantza, 1. Araia), proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun baliioduneko 10:00etan. Dokumentazioa zuzentzeko eskatuz gero, B gutun-azala proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo bosgarren egun baliiodunean irekiko da, leku eta ordu berean.

Iragarki gastuak: udalak ordainduko ditu.

VI-10100 ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onartu behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Araia, 2020ko urriaren 7a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ